

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ospitale Guneak hezkuntza programak eskaintzen ditu gaixotasun koronarioa duten pazienteentzat eta haien senideentzat

Bihotzaren Saileko erizainek eskaintzen dituzte prebentzio neurriak hobetzeko eta bizimodua aldatzeko


Miércoles, 11 de mayo de 2011

Osasun Departamentuak heziketa programak eskaintzen dizkie gaixotasun koronarioa dutenei eta haien familiei, ospitaleko alta jaso ondoren pazienteen autozaintzarako planekin jarrai dezaten. Horixe esan dute, gaur, Nafarroako Ospitale Guneako Bihotzaren Saileko erizainen eskumenen eta autonomiaren inguruan informatzeko egin duten ekitaldian. Ekitaldian izan dira

María Kutz Osasun kontseilaria, Carmen Ollobarren Nafarroako Ospitale Guneako Erizaintzako zuzendaria, Isabel Martínez Nafarroako Ospitale Guneako Bihotzaren Saileko erizaintzako burua eta Milagros Esquíroz, Lucía Lorenzo eta María Gorosquieta erizainak.

Informatzeko ekitaldiko mintzaldien gai nagusia Kardiologian erizainek duten eginkizuna izan da, baita gaur egun baliabideen kudeaketari aplikaturiko ikerketetarako, ezagutzarako eta berrikuntzarako eta osasun antolaketan parte hartzeko prestatuta dagoen lanbidean lortutako espezializazio maila ere.

Nafarroako Ospitale Guneako Bihotzaren Saileko erizainen taldea 99 profesionalek osatzen dute: 35 laguntzailek eta 64 erizainek. Horietako batzuk zenbait proba eta miaketa kardiologiko batzuk egiteaz arduratzen dira zuzenean, esate baterako, esfortzu probez, Holter kontsultaz, taupada-markagailuen kontsultaz, eta 2009ko ekainetik Nafarroako Ospitale Guneako Kardiologia zerbitzuak eskaintzen duen heziketa programa burutzeaz. Gaixotasun koronarioa duen pazienteari eta haren familiari zuzenduriko taldeko programa da eta horren helburuak prebentzio neurriak betetzen laguntzea eta bizimodua aldatzea dira. Erizaintzako langileek eskaintzen dituzten saioak ordu eta erdikoak izaten dira eta astean bi aldiz. Saio horietan bihotz-hodietako arrisku faktoreen inguruko ezagutza eskaini eta arrisku horiek prebenitzeko modua irakasten dute.



Ezkerretik eskuinera, Gómez, Gorosquieta, Martínez, María Kutz, Ollobarren, Lorenzo eta Esquíroz

Horrez gain, tratatzeko moduak eta bizimodua aldatzeak dakartzan onurak azaltzen dituzte. Era guztietako zalantzak ere argitzen dituzte, esaterako, elikadurari buruzkoak eta sexuaren inguruko kontu batzuk ere. 2010ean mota horretako 260 saio eskaini zituen hamar erizainen talde batek.

Esfortzu probak, Holter, taupada-markagailuen kontsulta

Esfortzu proba: Pazienteak ariketa fisikoa egiten duen bitartean elektrokardiograma bat (EKG) egitean datza. Normalean, abiadura eta malda areagotzen duen eta biraka doan zinta edo tapiz batean oinez ibiltzeko eskatzen dute. Proban zehar, EKGa eta tentsio arteriala kontrolatzen dira uneoro, eta egoera orokorra eta nekea, mina, opresioa, zorabioa, e.a. bezalako sintomak ere aldi oro begiratzen dira. Behar den edozertarako kardiologo bat dago beti inguruan. 2010ean 2.248 esfortzu proba egin zituzten Bihotzaren Saileko erizaintzako langileek.

Holter: Erregistro elektrokardiografikoa denbora jakin batez (24 ordu izaten ohi da) ospitaletik kanpo monitorizatzean datza. Palpitazioak, zorabioak edo sinkopeak dituzten pazienteei egiten zaie, baita iktusak, miokardiopatiak, e.a. izan dituztenei ere, edozein motatako arritmia baztertzeko. Azken urtean mota horretako 1.613 proba egin dira.

Taupada-markagailuen kontsulta: Nafarroako Ospitale Guneako arritmien unitateak burutzen duen jardueretako bat da eta 2007tik erizainek egiten dute taupada-markagailuak dituzten pazienteen jarraipena. Esfortzu proben kasuan bezala, uneoro elektrofisiologo bat dabil inguruan kontsultaren arduradun gisa behar izan daitekeen edozertarako. 2010ean 2.028 taupada-markagailu aztertu zituzten mota horretako